## Por tierra Y MAR





Muchas veces abro y cierro mis ojos, en un clic, como si pudiera conservar, de alguna manera, aquello que está a mi alrededor. Esto me ocurre con frecuencia en Lea Artibai, y queriendo guardar la vida que la comarca respira, cierro mis ojos y pinto en mi mente la escena que he visto fuera, jurándome que mañana no olvidaré mi cámara de fotos.

Los colores del agua, el olor de los pinos, los sonidos de las calles, el salitre del mar... las imágenes se visten de otras sensaciones, y se convierten en recuerdos.

**Lekeitio, Ispaster, Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga, Aulesti, Munitibar, Ondarroa, Berriatua, Markina-Xemein, Etxebarria, Ziortza-Bolibar…**

…nombres que evocan mil sueños y mil maneras de vivir.

Déjate llevar por nuestro ritmo y, por un momento, vuelve a casa atraído por la luz de nuestro faro. Ven a descubrirnos, y a formar parte de nosotros.






**TURISMO KUDEAKETA - GESTIÓN DE TURISMO**
**Leartibai Garapen Agentzia**
**www.learjai.com**

**TURISMO BULEGOAK - OFICINAS DE TURISMO**

**LEKEITIO**
Independentziaren enparantza, z/g
Tel.: 946 844 017 Faxa: 946 844 167
turismo@lekeitio.com

**ONDARROA**
Erribera, 9
Tel./fax: 946 831 951
turismobulegoa@ondarroakoudala.net
www.learjai.com

Leartibai Garapen Agentzia · Lea Ibarra · EUSKADI · Bizkaia

KIÑUKA 2011




## Itsasoz eta LEHORREZ





Askotan, begiak ireki eta itxi egiten ditut, klik batean, nolabait nire inguruan dagoena gordetzeko gai izango banintza bezala. Maiz gertatzen zait hori Lea Artibain, eta eskualdeak arnasten duen bizitza gorde nahian, begiak ireki eta nire buruan margotzen dut kanpoan ikusi dudana; zin egiten diot nire buruari bihar ez dudala nire argazki-makina ahaztuko.

Uraren koloreak, pinuen usaina, kaleetako soinuak, itsasoaren kresala... Beste zenbait sentipenekin nahasten dira irudiak, eta oroitzapen bihurtzen.

**Lekeitio, Ispaster, Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga, Aulesti, Munitibar, Ondarroa, Berriatua, Markina-Xemein, Etxebarria, Ziortza-Bolibar…**

…Izen horiek milaka amets ekartzen dizkidate gogora, eta milaka bizimodu.

Jarraitu gure erritmoari, eta, une batez, itzuli etxera gure itsasargiak erakarrita. Etorri gu ezagutzera, eta bat egin gurekin.











# Elementuen indarrarekin

Haran ezkutu txikiz osatzen da Lea Artibai; bertan, errekek marraztutako bidezidorrek itsasora eramango zaituzte ezinbestean. Olatuek zizelkatutako kostaldeak dira, hondartza, padura eta itsaslabar bereziak marrazten dituztenak. Etorri eta ohol baten gainean ibili ahal izango zara hiru Marien edo hiru olatu handien erritmora, edo talaietara igo ahal izango zara zeruertza begiztatzera. Paseatu, eta jarraitu ardoa eta beste zenbait salgai hartuta mesetatik zetozen antzinako mandazainen aztarnak.
Igo itsasontzi edo txalupa batera, eta itsasoak kulunka zaitzala. Bizi naturarekin bat eginda, gure mendietako berdearekin. Mugi zaitez, edo, besterik gabe, atseden hartu, eta jaso gure paisaiaren argia.



# Con la fuerza de los elementos

Lea Artibai son pequeños valles escondidos, donde el agua de los regatos ha trazado los senderos que te llevan inexorablemente al mar. Son costas esculpidas por las olas, que dibujan a su capricho playas, marismas y acantilados. Ven y podrás cabalgar sobre una tabla al ritmo de las tres Marías, las tres grandes olas, o subir a las atalayas para poder otear el horizonte. Camina y sigue las huellas de los antiguos arrieros que venían de la meseta cargados de vino y otros productos. Embarca y déjate mecer por la mar. Comparte tu vida con la naturaleza, con el verdor de nuestros montes. Muévete o, simplemente, relájate y déjate iluminar por nuestro paisaje.

# Harriek hitz egingo balute…



Istorio ugari kontatuko lizkigukete arrantzaleen etxe apalekin nahastutako etxetzarrei buruz, jauntxoen jauregiei eta baserriei buruz, fedearen izerdiarekin eraikitako elizei eta baselizei buruz, harriztatutako kaleei eta herriak bideetatik zetozen arriskuetatik babesten zituzten antzinako harresiei buruz. Itsasoak, mendiak eta ibaiek zehazten dituzte mugak, eta guk natura moldatzen dugu bizitza ematen digun lur honetan bizi ahal izateko.
Ezagutu gure portuen mamia, ibili noraezean baserri-auzoetan zehar, eta behatu urtaroek adierazten duten erritmoa. Senti ezazu Done Jakue bidearen espiritualtasuna, pausoek zure patua gure eskualdean zehar gidatzen duten heinean.













# Si las piedras hablaran…

Nos contarían historias de antiguas casonas mezcladas con modestas casas de pescadores, palacios de señores y caseríos de labranza, iglesias y ermitas erigidas con el sudor de la fe, calles empedradas y restos de antiguas murallas que protegían las villas de los peligros que llegaban a través de los caminos. El mar, el monte y los ríos marcando los límites y nosotros modelando la naturaleza para poder habitar esta tierra que nos da la vida.
Conoce la esencia de nuestros puertos, piérdete en los barrios de caseríos y observa el ritmo que marcan las estaciones. Siente la espiritualidad del Camino de Santiago mientras tus pasos guían tu destino a través de nuestra comarca.







# Horrelakoak gara

Sirena bat entzuten da... iritsi da arraina portura, herriaren taupadak jotzen dituela: deskargatzera joan behar da, kontserbategietara, arrandegietara...
Ilgora da... sagarrondoak kimatzeko garaia, arrantza egitekoa, edo, agian, perretxiko bila joatekoa.
Ez ahaztu oroitzapen gaiztoak erre behar dituzula San Juanetan, edo eguzkilore bat jarri behar duzula atean izpiritu txarrak uxatzeko.
Ospatu bizia erromerietan, eta, bitartean, ikusi nola gainditzen ditugun gure mugak harriak jaurtiz, belazeak segatuz edo bertsoak sortuz; azken horiek haizearekin hegan egiten dute hitzen arteko borroka batean, eta, azkenean, barreak eragiten dituzte ia beti.

# Así es como somos

Suena una sirena… es el pescado que ha llegado a puerto, marcando el latido del pueblo: hay que ir a descargar, a las conserveras, a las pescaderías…
La luna está en cuarto creciente… es día de podar los manzanos, ir a pescar o tal vez recoger setas.
No olvides quemar tus malos recuerdos por San Juan o colgar en tu puerta una “eguzkilore” para alejar a los malos espíritus.
Celebra la vida en las romerías, mientras se puede ver cómo desafiamos nuestros límites alzando piedras, segando prados o creando versos que vuelan por el aire en una lucha de palabras que casi siempre termina en risas.















# Gozatu guk bezala

Itsasoak edo kilkerren kantuak urrumatuta lo egitea? Jauregi, errota, antzinako komentu edo baserri batean?
Goiz berean baratzetik jasotako produktuak edo itsasoaren zaporea dastatzea?
Afari eder bat kandelen argitan, edo pintxo batzuk taberna bateko giro ederrean?
Ziur zure errezetak prestatzeko ideia berriak bil ditzakezula, edo gure ohiko salgaiak erosi betiko dendetan, merkatuetan edo nekazaritza-azoketan.



# Disfruta con nosotros

¿Dormir arrullado por las olas del mar o por el canto de los grillos? ¿En un palacio, un molino, un antiguo convento, un caserío…? ¿Degustar los productos recogidos en la huerta esa mañana o el sabor a mar en tu boca? ¿Una cena con velas o unos pinchos entre el barullo del ambiente en un bar? Seguro que puedes llevarte ideas para hacer tus propias recetas, e incluso comprar nuestros productos más típicos en las tiendas de toda la vida, en el mercado o en las ferias agrarias.







